

Gatazka gainditzeko elkarrizketaren bidea bultzatuko duela iragarri du IUk

Nafarroa eta EAEko koordinatzaileek bake proposamen bat aurkeztu dute

NAFARROA eta Euskal Autonomi Elkarteko IUk txosten bat hitzartu dute Euskal Herrian bizi den gatazka politikoa gainditzeko negoziazioa proposatuz. Felix Tabernak eta Javier Madrazok Espainiako Gobernu eta ETA erakundearen «inmobilismoa» ezetsi eta alderdiek jorratu beharreko bideaz jardun zuten. Autodeterminazioan oinarrituriko estatu federalaren aldeko apustua berretsi du IUk.

Erredakzioa / Gasteiz

FELIX TABERNA eta Javier Madrazok Nafarroa eta EAEko IUk adostutako bake proposamena aurkeztu zuten atzo Gasteizen. Behin betiko idazki aldaezina ez dela azaldu ostean, IUko buruek Espainiako Gobernuak eta ETAk duten «inmobilismo eta itxikeriari» egotzi zioten Euskal Herrian bake bideak ez aurkitzearen errua.

Iuren hausnarketa biolentziaren fenomenoak «Estatu osoan» harlauza baten zama daukala aitortzetik abiatzen da, eta, horren ondorioz, Euskal Herrian ere politikagintzaren zati handi batek gai honetan duela ardatza aitortu du. Hortaz, elkarrizketaren aldeko apustua berresten du eta elkarrizketa gauzatzeko zenbait neurri zehazten ditu.

Egun edozein helburu politiko beste tresna batzuk erabiliz defendigarria dela uste arren, IUk aitortzen du euskal gizarteko sektore batek ontzat ematen duela biolentziaren erabilpena helburu politikoak lortzeko. «Eta horren kontra ezin daiteke borro-



Javier Madrazok eta Felix Tabernak aurkeztu zuten Iuren agiria.

DAVID AGUILAR

katu legea eta poliziaz soilik, politikoki ere borrokatu behar da, politikaren oinarritzko tresnekin: elkarrizketa eta negoziazioa».

Hego Euskal Herriko IUko burukideek azaldu zuten zazpi orriko idazkia Espainiako IUko zuzendaritzari eta EAE zein Nafarroako lehendakariari bidaliko dietela azter dezaten. Madrazok azaldu zuenez, Jose Antonio Ardanza eta Miguel Sanzi igorriko diete Ajuria Enea eta Iruñeko itunetan eztabaidatzeko aukera azter dezaten.

Bestalde, IUko burukideek Espainiako alderdi batzuen immobilismoa ere ezetsi zuten. Madrazoren esanetan, alderdi horiek «prestu daude biolentziaren kostuak bereganatzeko», beraien milaka boto batzuk arris-

kuan jarri baino lehen.

Abiapuntu gisa IUk autodeterminazio eskubidean oinarritzen den estatu federalaren aldeko apustua egiten du. Aldi berean Espainiako Konstituzioa berregin eta EAEko Estatutua zein Nafarroako Amejoramentuaren garapen osoa eskatzen du.

Tortura aztertzeke batzordea

Torturaren Aurkako Elkarteak zein Amnesty Internationalek torturatzen dela berretsi dutela eta, estatuko edozein funtzionariok giza eskubideak hautsi izanaren salaketa baten aurrean ikerketa batzorde parlamentarioa eratzea proposatzen du.

Bestalde, politika antiterrorista zuzenbide eskubide bati dagokion legediaren barruan garatzea

eskatu du. Hortaz, arlo antiterroristari dagokion legedi berezia bertan behera uztea eskatu du. Testuinguru berean Espainiako Entzutegi Nazionalaren desagerpena nahi du.

IUk bake bideak jorratu nahi dituela agerrarazten du *Elkarrizketarako proposamena* izeneko idazlanean. Mahaikideak zehazteko orduan IUk alderdien arteko mahaia proposatzen du. «Arlo politikoan bakarrik izan dezakete parte demokrazian herritarrek marko instituzionalean legitimatzen dituzten alderdiek». Elkarrizketarako alde guztien apustua beharrezko dela uste izanik, ETARI borroka armatua uzteko borondatearen «adierazpen ikusgarri eta zalantza gabeak» egiteko eskatu dio. x

Laudioko eta Iruñeko hamar gazte espetxetik atera dira

■Guztira 6,8 milioi pezetako fidantza ordaindu behar izan dute

Erredakzioa / Iruñea

IÑAKI BEAUMONT, Esteban Nuin eta Cesar Barbarin iruindarrak behin-behineko askatasunean gelditu ziren atzo, fidantza ordainduta. Beaumontek eta Nuinek 200.000 pezetako fidantza ordaindu behar izan zuten kartzelatik ateratzeko. Barbarini, berriz, bost milioi pezetako fidantza ezarri zioten.

Cesar Barbarin iazko abenduan atxilotu zuten, *Y talde* bateko kide izateaz akusatuta, eta Alcalan espetxeratu zuten. Esteban Nuin otsailean atzeman zuten eta Iñaki Beaumont martxoan. Biei *Y taldeko* kide izatea leporatu zieten, eta epailearen aurrean deklaratu ondoren Valdemoron giltzaperatu zituzten.

Ertzaintzak apirilaren Laudion atxilotu zituen zazpi gazteak ere atzo atera ziren kartzelatik. Honako hauek dira: Ritxar Casero, Fran Marcos, Patxi Abad, Angel Benito, Iñaki Garcia, Aitor Goikoetxea eta Juan Carlos Sanchez. Bakoitzak 200.000 pezetako fidantza ordaindu behar izan zuten kartzelatik ateratzeko. Bart gauean ongi-etorria egin zieten Laudion, eta etzi herri omenaldia egingo diete.

Laudioko zazpi gazteak apirilaren 15 eta 16an atxilotu zituzten. Hainbat sabotaje leporatu zizkieten, eta inkomunikatu egin zituzten. Gero Madrilgo Entzutegi Nazionalera eramán zituzten deklarazioa hartzeko. Instrukziozko 3. epaitegian deklaratu ondoren, zazpiak espetxera bidali zituzten epailearen aginduz. x

Elkarri-k konpromezua eskatu du prozesu bat zabaltzeko legealdia amaitu aurretik

■ «Belaunaldi kaltetuenarentzat» bakea lortzeko kanpaina aurkeztu du

Ramon Olasagasti / Donostia

ELKARRI-K, elkarrizketaren aldeko gizarte mugimendua, datorren astebururik aurrera abiatuko duen kanpaina aurkeztu zuen prentsaurrekoan. *Bakea lortu gure historia hurbileko belaunaldi kaltetuenarentzat* du leloa kanpaina berriak.

Elkarri-ren ekimen horren helbururik behinena, ordea, erakunde, politika, sindikatu, gizarte eta beste arlo batzuetako jendea legealdi hau amaitu aurretik prozesu batean inplikatzeko da, «ezkutuan edo azalean, isilean edo jendaurrean, prozesu hori zabaltzeko konpromezua har dezagun, gure nagusiengatik,

etorkizunagatik eta elkarbizitza hobe bategatik». Hala adierazi zuen Jonan Fernandezek, Elkarri-ko koordinatzaile nagusiak.

Beste gatazka batzuen eta Euskal Herrikoaren artean ezberdintasun nagusia, Elkarri-ren arabera, besteak «konponbidean» daudela da. «Geurea, ordea, oraingoz irtenbide eta etorkizunik gabeko gatazka da. Galtzeko ezer eta irabazteko asko daukan konpromezua hartzea ari gara proposatzen. Aukerak, baliabideak eta prozedurak ugari dira», azaldu zuen Elkarri-ko koordinatzaileak.

Kanpainaren izenburuak aipatzen duen belaunaldi kaltetua 70 urtetik gorakoek osatzen dute.

«Hartzaroan eta gaztaroan gerrate zibila bizi izan zutenek, gerra ostea eta frankismoa pairatu zutenek eta demokrazia iritsi eta benetako bakea ezagutu ez dutenek 'guk ez dugu bakea ezagutuko' esaten jarraitzen dute», esan zuen Fernandezek. Hori dela eta, «belaunaldi pribilegiatuko politikoei» gure historia hurbileko «belaunaldi kaltetuenarentzat» bakea lortzeko konpromezua eskatu zien.

Elkarri-ren ikuspuntutik egoera «gaizki» dago. «Inmobilismoak pipiari bidea egiten dio, eta egoera okerrera doa». Euskal Herrikoa «intentsitate gutxiko gatazka bortitza» dela eta, Elkarri-ren iritziz klase politikoak eta nazioar-



Jonan Fernandez, Maixux Rekalde eta Aintzane Ezenarrok eman zuten atzo prentsaurrekoa.

EDURNE KOCH

teak erraz justifikatzen du immobilismoa. «Taularen gainean beti dago norbait hau ez dela garaia esateko», zehaztu zuen Jonan Fernandezek. «ETAren eta Espainiako Gobernuaren estrategiak

kontrako biderantz doaz. Horregatik ezin dugu prozesua zabaltzeko haien zain egon».

Elkarri-k, bestalde, bakerako foro bat sortzeko proposamena eramango du Estrasburgora. x